

EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA

1
DBH

Irakaslearen gidaliburua



EUSKAL HIZKUNTZA **1**
ETA LITERATURA DBH

Irakaslearen gidaliburua

Kepa **Larrea**

Julian **Maia**

Asier **Romero**

Gorane **Intxaurreaga**

Urtza **Garay**

Aintzane **Etxebarria**

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo Cedrorra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

1. argitalpena: 2012ko irailean

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta
Ikerketa Sailak onetsia (2012-V-9)*

Maketazioa:

Erein

Azala eta barruko ilustrazioak:

Juan Luis Landa

© Kepa Larrea, Julian Maia, Asier Romero, Gorane Intxaurreaga,
Urtza Garay, Aintzane Etxebarria

© EREIN. Donostia 2012

ISBN: 978-84-9746-756-8

L.G.: SS-1401/2012

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.com

www.erein.com

Inprimatzailea: Gertu

Zubillaga industrialdea 9, 20560 Oñati

T 943 78 33 09 F 943 78 31 33

e-mail: gertu@gertu.net

Aurkibidea

| | |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------|------------|
| Ikasmaterialaren ezaugarriak eta eduki-segida | 5 |
| Ikasmaterialaren eduki-segida | 5 |
| Dagokion curriculum-dekretuarekin, diseinuarekin edota gainerako orientabideekin duen lotura | 7 |
| Ikasmaterialaren beraren xedea eta izaera | 8 |
| Helburuak | 8 |
| Metodologia | 10 |
| Nori zuzentzen zaion | 11 |
| Erabilera modua | 11 |
| Zer euskarritan argitara emango den | 12 |
| DBHko 1. maila: Unitateen eskema | 13 |
| 1. unitatea: Gertaera harrigarriak. Komikia | 15 |
| 1. Testu mota | 15 |
| 2. Hizkuntza-ekintzak | 16 |
| 3. Ulertu | 19 |
| 4. Hizkuntza-ezaugarriak | 19 |
| 5. Sortu. Egin komiki bat bost urratsetan | 25 |
| Ebaluazioa. Zer ikasi dut? | 26 |
| 2. unitatea: Euskaldunen komeriak. Antzezlanak | 27 |
| 1. Testu mota | 27 |
| 2. Hizkuntza-ekintzak | 27 |
| 3. Ulertu | 28 |
| 4. Hizkuntza-ezaugarriak | 32 |
| 5. Sortu. Bizitza antzeztu bost urratsetan | 39 |
| Ebaluazioa. Zer ikasi dut? | 39 |
| 3. unitatea: Euskal Herriko hiri berdeak. Deskribapena | 41 |
| 1. Testu mota | 41 |
| 2. Hizkuntza-ekintzak | 42 |
| 3. Ulertu | 44 |
| 4. Hizkuntza-ezaugarriak | 49 |
| 5. Sortu. Hiri ideala bost urratsetan | 59 |
| Ebaluazioa. Zer ikasi dut? | 60 |
| Lehenengo ebaluazioko proiektua | 61 |
| 4. unitatea: Bertsoz bertso. Bertsolaritza | 62 |
| 1. Testu mota | 62 |
| 2. Hizkuntza-ekintzak | 63 |
| 3. Ulertu | 65 |
| 4. Hizkuntza-ezaugarriak | 66 |
| 5. Sortu. Bertso-saio bat bost urratsetan sortu | 78 |
| Ebaluazioa. Zer ikasi dut? | 79 |
| 5. unitatea: Sorginak, Mikelats, jentilak eta iratxoak. Kondaira | 80 |
| 1. Testu mota | 80 |
| 2. Hizkuntza-ekintzak | 82 |
| 3. Ulertu | 84 |
| 4. Hizkuntza-ezaugarriak | 87 |
| 5. Sortu. Ipuin bat sortu bost urratsetan | 98 |
| Ebaluazioa. Zer ikasi dut? | 99 |
| 6. unitatea: Irakurriz gozatu. Eleberria | 100 |
| 1. Testu mota | 100 |
| 2. Hizkuntza-ekintzak | 101 |
| 3. Ulertu | 102 |
| 4. Hizkuntza-ezaugarriak | 106 |
| 5. Sortu. Liburutegi ibiltari bat sortu bost urratsetan | 114 |
| Ebaluazioa. Zer ikasi dut? | 114 |
| Bigarren ebaluazioko proiektua | 115 |

| | |
|--------------------------------------------------------------------------|------------|
| 7. unitatea: Eskubideak eta betebeharrak. Eskutitzak eta e-mailak | 116 |
| 1. Testu mota | 116 |
| 2. Hizkuntza-ekintzak | 117 |
| 3. Ulertu | 117 |
| 4. Hizkuntza-ezaugarriak | 121 |
| 5. Sortu. Eskaera bat idatzi bost urratsetan | 131 |
| Ebaluazioa. Zer ikasi dut? | 134 |
| 8. unitatea: Perexila eta kamomila. Errezetak | 137 |
| 1. Testu mota | 137 |
| 2. Hizkuntza-ekintzak | 137 |
| 3. Ulertu | 138 |
| 4. Hizkuntza-ezaugarriak | 140 |
| 5. Sortu. Euskal sukaldaritza: errezeta bat idatzi bost urratsetan | 154 |
| Ebaluazioa. Zer ikasi dut? | 156 |
| 9. unitatea: Etorkizuna jakiteko irrikitan. Horoskopoa | 159 |
| 1. Testu mota | 159 |
| 2. Hizkuntza-ekintzak | 162 |
| 3. Ulertu | 162 |
| 4. Hizkuntza-ezaugarriak | 164 |
| 5. Sortu. Horoskopoa bat asmatu eta idatzi bost urratsetan | 177 |
| Ebaluazioa. Zer ikasi dut? | 177 |
| Hirugarren ebaluazioko proiektua | 179 |

Ikasmaterialaren ezaugarriak eta eduki-segida

Hizkuntza ahozko nahiz idatzizko komunikaziorako tresnarik garrantzitsuena den heinean, material honen xedea DBHko ikasleek euskaraz izan beharreko komunikazio-gaitasunaren garapenean lagungarri izatea da. Komunikazio-gaitasuna kontzeptu abstraktua eta orokorra izanik, bere barnean hartzen ditu beste gaitasun batzuk ere, hala nola, linguistikoa, soziolinguistikoa eta pragmatikoa. Haurrek hizkuntza-edukiez gain, norekin edota norentzat hitz egiten ari diren eta zer helbururekin kontuan izan behar dute; izan ere, jakin egin behar dute bereizten ezin diola modu berean hitz egin irakasleari edota ikaskideari.

Komunikazioa testuinguru anitzetan agertzen dira: eskolan, zineman, parkean, lagun-en etxean, baserrian, zoon, azokan eta mendian. Ereku horietan ikasleak izan beharreko komunikazio-gaitasuna, zentzurik eta orokorrean lantzen ahalegindu gara; horretarako, kontu handiz aukeratu ditugu jorratu beharreko gaiak, ahalik eta errealean izan daitezkeen, eta bertan erabili beharreko hizkuntza-baliabideak idatzizko nahiz ahozko komunikazioan landu ditugu.

Aurkezten dugun ikasmaterial honen bidez ohiko hizkuntza ikuspegiaren eta metodologiaren al-daketa proposatzen dugu. DBHko mailetan sarri askotan hizkuntza eta literaturaren irakaskun-tza modu memoristikoa eta ikuspuntu estrukturalistetatik abiatu dira hizkuntzaren erabilera erreala eta ikastetxearen helburu sozializatzailea alde batean utzirik.

Ikasmaterialaren eduki-segida

Sekuentzia didaktiko guztiek hiru atal nagusi dituzte: *komunikazio-gaitasuna lantzeko atala*, *hizkuntza-gaitasuna lantzeko atala* eta *proiektua lantzeko atala (sortu)*. Atal bakoitzaren amaie-ran ebaluazio atal bat gehitu dugu, kontrol zerrenda baten bidez ordura arte egindako prozesua eta lortutako emaitzak erregularizatuko dituen. Horrek ez du esan nahi atal bakoitzean aipatu-riko gaitasunak baino ez direla landu. Aitzitik, komunikazio-gaitasuna izan da sekuentzian zehar izan dugun erreferentzia nagusia; baina metodologia aldetik, sekuentzia hobeto antolatzearen, hiru zati horiek izan dira abiaburu nagusiak

Aurreko ez gain, hiru unitateko (hots, hiruhilabeteko bakoitzaren bukaeran) lantzeko proiektu be-rezi bat eta irakurketa atal bat gehitu ditugu, aurreko sekuentzien osagarri.

a) *Komunikazio-gaitasuna lantzeko atalak:*

Sekuentzia guztien hasierako lehenbiziko orrialdeetan aurkezpen testuak daude, gainerako orrialdeetan landuko den gaiaren barneratzeko balio dute, eta liburuko pertsonaien arteko el-karrizketa edota testu jarraia izan daiteke. Idatzizko elkarrizketak direnean, DVDko graba-zioen bidez ahoz ere entzun daitezke eta zenbaitetan irudiz ikusi ere bai..

Atal hau gaiaren sarbidea da, eta proposaturiko testuen bidez ikaslearen motibazioari eragin eta jakinmina piztu nahi dugu. Hasierako atal honek ikaslearen aurrejakintzak azalarazteko ere balio du.

Atal honetan sekuentzia hasierako testuen ulermena lantzen da. Testuak gaiaren arabera-koak izango dira eta formatu eta era askotakoak izan daitezke: narrazioa, deskripzioa, el-karrizketa. Testu idatziek behar dituzten irudiak, grabazioak eta osagarriak izango dituzte. Egin beharreko ariketarako teknika ezberdinak erabili dira, batik bat ikasleen motibazioa

handitzeko: informazioa osatu irakurritakoaren arabera, galdera-erantzunak, erantzun zuzena aukeratu eta abar. Testuaren beraren ezaugarriak ere lantzen dira zenbait ariketen bidez. Komunikazio-gaitasuna lantzeko atal hau azpiatal hauetan banatuta dago:

- *Izenburua*: Gertaera harrigarriak; Euskaldun berri baten komeriak, Sorginak, Mikelats, Jentilak eta Iratxoak...
 - *Testu mota (eremua)*: Komikia, antzezlanak, deskribapena...
 - *Hizkuntza ekintzak*: Istorio baten azalpena elkarrizketa bidez, bertsoak sortzeko bideak aztertu, Gertaerak aipatu/ lotu...
 - *Ulermena*: Kondariak irakurri eta entzun, Eleberrien egitura: aurkezpena, korapiloa eta konponbidea
- b) *Hizkuntza-gaitasuna lantzeko atalak*: Hizkuntza-gaitasuna landuko da honako atal hauetan (Hizkuntza-ezaugarriak):
- *Egitura bereziak*. Atal honetan hizkuntzaren alde pragmatikoari ekin diogu eta egoera jakinetan testuaren egokitasuna lantzeko proposamenak egin ditugu. Adibidez: elkarrizketako hasierako eta bukaerako agurrak; solaskidearen interesa pizteko esamoldeak (“Ba al dakizu zer...?”); ipuinen hasierako eta bukaerako formulak...
 - *Lexikoa*. Sekuentzia bakoitza gai jakin baten ingurukoa denez, gai horri dagokion hiztegia lantzen da, eremu semantiko jakinetarako baliabideez hornitzeko haurra. Horretarako, maiz, irudietara eta euskal kulturaren ditugun bestelako baliabide entretenigarrietara jo da, esaterako, asmakizunak eta letra zopak erabili dira. Hona zenbait gai: zientzia fikzioa, liburuak eta liburutegiak,...
 - *Morfosintaxia*. Ahozko nahiz idatzizko hizkuntza egokirako ezinbestekoak diren gramatika-arauak ezagutzeko burutu da atal hau. Gramatika-egitura sinpleenetatik abiatuta, konplexuenerako bidea egin da. Adibidez: galdetzaileak eta galdetzaileen deklinabideko kasuak (nor, nondik, nongo, zerez...); esaldi sinpleak (galdera-erantzunak); zehar estilo eta estilo zuzena; izenondoak; erlatiboak; esaldiak...
 - *Ortografia*. DBHn agertzen diren ortografia arazoak ekiditeko asmoz, alor horretako ortografia arauak eta Euskaltzaindiaren bestelako zenbait arau era errazean landuko dira; alegia, hitz-elkarketa; noiz jarri letra larria ala xehea; puntua eta koma; txistukarien erabilera...
- c) *Proiektua lantzeko atala (Sortu)*:
- Bukaerako atalotan sekuentzian zehar ikasitakoa praktikara eramango dute ahozkoa nahiz idatzia lantzea eskatzen duen proiektu baten bidez. Ahozko ekoizpenean ez ezik, idatzizkoan ere hizkuntza ondo erabiltzea garrantzitsua da, horregatik, aurreko atalaren osagarri gisa, sekuentzian zehar ikasitakoa idatziz eta ahoz adierazteko bost urratsetan gauzatzeko proiektua proposatzen da. “Sortu” deritzo atal honetan testu osoak sortuko dituzte. Adibidez:
- Egin komiki bat bost urratsetan.
 - Antzetzu bizimodua bost urratsetan
 - Eraiki hiri ideala bost urratsetan
 - Bertso saio bat sortu bost urratsetan
 - Ipuin bat sortu bost urratsetan
 - ...

Dagokion curriculum-dekretuarekin, diseinuarekin edota gainerako orientabideekin duen lotura

2007an Euskal Autonomia Erkidegorako Curriculum Dekretua argitaratu zen, eta han ezartzen dira hizkuntzaren irakaskuntzaren oinarriak eta jarraibideak, ahozko hizkuntzarenak barne. 2010ean dekretu hura dekretua berritu eta egokitu zen (97/2010 DEKRETUA, martxoaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma sortu eta ezartzeko den Dekretua aldatzen duena (175/2007 DEKRETUA, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma sortu eta ezartzekoa).

Aipatu dekretu horietan hezkuntzak lortu beharreko helburuak zeintzuk diren zehazten da. Bertan biltzen dira edukiak, prozedurak eta landu beharreko jarrerak. Curriculum horrek, era berean, hezkuntza gizarteak dauzkan ezintasun eta ajeen ispilu eta eredu errepikatzailer bilaka dezagun eragozten digu.

Curriculum ezarritako hastapenetatik habiatuta eta egungo errealitate soziala aintzat hartuta, gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna lantzeari arreta berezia eskaini diogu; batetik, geure inguruan gero eta etorkin gehiago ditugunez, liburuan zehar jatorri eta kultura ezberdinetako pertsonaiak jarri ditugu; bestetik, nesken eta mutilen arteko berdintasuna ere bultzatu dugu.

Komunikazio-ekintzari (irakurketa, idazketa, hizketa) edota eduki linguistikoari erreparatuta, ikasleen mailara egokitutako ariketak aurkeztu ditugu. DBHko ikasleen komunikazio-gaitasuna kontuan harturik, beharbada hizkuntza-forma eta bestelako eduki linguistiko asko ezagutuko dituzte, egunerokotasunean entzuten edota erabiltzen dituzte eta. Dena dela, idatziz lantzeko orduan arazoak izan ditzakete, horregatik hizkuntzaren gaineko hausnarketa eta azterketa kontziente bat bultzatu nahi dugu egitasmo honen bidez. Funtsean, 2010eko Curriculumaren orientabideei jarraitu diegu hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna garatzeko:

- Hainbat komunikazio egoeratan eta testuingurutan, ahozko eta idatzizko testuak ulertuz edo ekoitziz.
- Hizkuntza eta haren erabilera araei buruz hausnartuz.
- Hizkuntzaren erabilerarako trebetasunak jaso eta beste hizkuntza batzuen erabilerara transferituz.

Curriculum Dekretuaren ondorioz, gurean garrantzi handia izan dute ikuspegi testual eta diskurtsiboek, eta hizkuntzaren erabilera errealari lotutako hurbilbide metodologikoez. Horregatik, ikasmaterialaren ezaugarriak azaldu ditugunean (Ikus 1. Ikasmaterialaren ezaugarriak) irizpide horiei atxiki gatzaizkie. Hala eta guztiz ere, urteetan hizkuntza idatzia izan da hizkuntzen irakaskuntzaren ardatz; jarduera didaktiko gehienak modalitate idatzia lantzerantz bideratuta egon dira eta, sarritan, literatura-ereduetan oinarrituta. Gehienetan, ahozko hizkuntza nahiko alboratuta geratu da, alde batetik, kontzeptua bera ere zaila delako mugatzen; bestetik, ez delako erraza zer eta nola irakatsi behar den erabakitzea. Gainera, ahozko hizkuntza lantzea neketsuagoa gerta daiteke ikasle kopuruarengatik, metodologia arazoengatik, ebaluatzeko zailtasunengatik, e.a.

Hizkuntzaren ikuspegi komunikatibo eta funtzionaletik, ordea, ezinbestekoa da ahozko hizkuntzari ere erreparatzea eta ahozko hizkuntzaren irakaskuntzari ere lekua egitea. Are gehiago,

erabilera erreala aintzat hartu nahi eta ikasleei komunikazio-egoera errealetan jarduten irakatsi nahi izanez gero. Borondate hori aitortzen da, hain zuen, 2007ko Curriculum Dekretuan eta 2010ekoan berrezartzen da. Curriculum horretan zehazten dira irakaskuntza-prozesuaren bukaeran ikasleek eskuratu behar dituzten trebeziak eta horretarako baliatu behar diren edukiak, metodologia eta ebaluazio-irizpideak. Bigarren urrats batean, berriz, testuliburuak edo ikasmaterialak dira curriculum dekretuetan ezarritakoa gelara eramateko baliabiderik garrantzitsuenak. Izan ere, Curriculumean aipatzen diren eduki, metodologia eta ebaluazio horiek gehiago zehaztu ditugu proiektu honetan, baita sekuentzia didaktikoen bidez antolatu ere.

Ikasmaterialaren beraren xedea eta izaera

Aurkezten dugun DBHrako egitasmo honetan biltzen diren ikasmaterialen bidez, Euskal Hizkuntza eta Literatura arloan nagusiki bi helburu hauek lortu nahi dira:

- Irakasleen beharrei begiratuz, eta indarrean dagoen Curriculumentik abiatuta, metodologia berrietara hurbiltzeko lehenengo urratsa ematea.
- Gazteen beharrei begiratuz, eta Curriculum berriko gaitasunetan trebatzeko, proposamen egokiak eta erakargarriak aurkeztea.

Eskolaren eginkizunei begiratuta, berriz, bi hauek izango dira ikasmaterial honen eginkizun nagusiak ikasleak ardatz harturik:

- Ikasleek komunikatzeko eta irudikatzen duten gaitasuna garatzea, ahozkoa nahiz idatzizkoa.
- Ikasleek hizkuntza arloan dakartzaten hutsuneak betetzea (hizkuntzaren erabilera zuzena ikasgelara eta bertako eginkizunetara mugatu gabe).

Helburuak

Curriculumari jarraituz, gure helburu didaktikoak, besteak beste, hurrengo hauek dira: trebetasun guztietan, ahoz nahiz idatziz, testu mota gehienak lantzea, beti ere duten mailara egokituz, azken batean, era zuzenean komunikazio gaitasuna garatzea eta zeharka curriculumean datozen bestelako gaitasunak. Horretarako, gai eta alor ezberdinetako testuak irakurri eta entzungo dituzte: web-orrialdeetakoak, albistegietakoak, alegietakoak eta abar. Era berean, honakoa lortu nahi da: Aurreko atalean (Ikus 3. Dagokion curriculum-dekretuarekin lotura) adierazitako helburu eta gaitasunak aurrean ditugularik, materialak prestatzean, batez ere irizpide hauek izan ditugu gogoan:

- Hizkuntza pertsonak elkarrekin komunikatzeko tresna da.
- Hizkuntza mundua irudikatzen bitartekoa ere bada. Horregatik, pentsamenduetarekin eta ezaguerarekin oso lotuta dago.
- Hizkuntzak literatura mundurako abiapuntu ere izan behar du.
- Ikasgelan, ikasleak dira hizkuntza komunikazioaren prozesuko protagonista zuzenak, bi ikuspegitatik begiratuta: hartzaile modura (irakurketa eta entzumena) eta sortzaile modura (idazketa, elkarrizketa eta hizketa).

Derrigorrezko Bigaren Hezkuntzan, Euskal Hizkuntza eta Literatura irakasgaien helburua honako gaitasun hauek lortzea da:

1. Hizkuntza erabiltzeko era askotako eremuetatik jasotako diskurtso idatziak eta ahozkoak ulertzea eta ikuspegi kritikoz interpretatzea, horietan ulertutakoa beste komunikazio-egoera batzuetan aplikatzeko.
2. Ahoz eta idatziz, esan-idatziak egoki, koherentziaz eta zuzen adierazteko eta solasteko gaitzatea, errespetuzko eta lankidetzarako jarrera hartuz; hau da, hainbat komunikazio-egoeraren ezaugarriak eta hizkuntza-arauak kontuan izan behar dira, komunikazio-premia bakoitzari eraginkortasunez erantzuteko.
3. Soziolinguistikaren oinarrizko ezagutzen laguntzaz, gure errealitate elebiduna ezagutzea eta interpretatzea, euskararen erabilera arrunta bermatzeko.
4. Soziolinguistikako oinarrizko ezagutzak kontuan hartuz, eleaniztasunaren eta kultura-aniztasunaren dibertsitatea ezagutzea eta interpretatzea, hizkuntza-aniztasuna lortzeko bide positibo gisa; dibertsitate hori kultura-aberastasun gisa balioetsiko da.
5. Hizkuntzen erabilerari buruz hausnartzea, gizarteko eta kulturako hainbat testuingurutan behar bezala komunikatzeko aukera ematen duten estrategiak hartzeko; horrela, balio-judizioa eta era guztietako aurreiritziak sortzen dituzten hizkuntza-estereotipoak saihestuko dira.
6. Testuak ulertzeko eta sortzeko prozedurak kontuan hartuz, erlazioan dauden hizkuntzen sistemei buruz hausnartzea, horietako bakoitza behar bezala, koherentziaz eta zuzen erabiltzeko eta transferentzia negatiboak saihesteko.
7. Informazioa bilatzean, hautatzean eta prozesatzean, gizarteko komunikazio-bideak eta informazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz eta espiritu kritikoz erabiltzea, eskolajardueran hizkuntza mintzatua eta idatzia eraginkortasunez erabiltzeko.
8. Norberaren ikaskuntza-prozesuei buruz hausnartzea, beste hizkuntzetan eta alorretan jasotako ezagutzak eta komunikazio-estrategiak transferitzeko; horrela, ikaskuntzan autonomiaz jokatzeko norberak duen ahalmenean gero eta konfiantza handiagoa sentituko dute.
9. Literatura-generoen oinarrizko arauak eta horien bilakaera historikoaren oinarrizko etapei eta obrei buruzko ezagutza erabiltzea, literatura-testuen eta literatura-asmoko testuen ulermena eta produkzioa bultzatzeko.
10. Literatura-ondarea balioestea norbanakoak eta taldeak historiako eta kulturako hainbat testuingurutan izandako esperientzia sinbolizatzen; horrela, euskal literaturako, inguruan dauden herrialdeen literaturako eta literatura unibertsaleko ereduak obrak irakurriz eta aztertuz, norberaren kultura-identitatea eraiki ahal izango da.
11. Ereduak testuak eta norberak hautatutako testuak irakurriz eta ikus-entzunezko beste eremu batzuk ere kontuan hartuz, literatura-obrez gozatzea, norberaren esperientziari zentzua emateko, mundua eta giza egoera ulertzeko eta sentiberatasun estetikoak garatzeko.

Metodologia

Sekuentzia didaktikoa da programazioaren ardatza. Sekuentzia didaktikoak eskaintzen dituen abantailak ikusirik, geureganatu dugun programatzeko era. Sekuentzia didaktiko guztiek helburu orokor bat dute, hasieran definitzen dena eta izenburu baten inguruan antolatzen dena. Helburu nagusi horren inguruan beste batzuk antolatzen dira eta horiek lortzeko hainbat hizkuntza jarduera egin behar izaten dira.

Proiektu honetan proposatzen dugun sekuentzia didaktiko bakoitzean proiektu bat dago adierazita; hau da, bukaeran zer lortu nahi den. Baina horra heltzeko trebetasun eta azpitrebetasun batzuk landu behar dira eta baita horiek bete ahal izateko zenbait hizkuntza jarduera egin ere. Sekuentzia didaktikoetan zehaztu ditugun jarduera horiek proposatzeko hastapen hauek kontuan hartu ditugu:

- a) *Ikasleen maila ezagutu eta abiapuntutzat hartu.* Ikasleen maila ezagutzeko hasierako testuak erabil daitezke, eta hortik habiatuta ikasleek egoera errealetan oinarritutako jarduerak egin, hausnartu eta konparatu.
- b) *Aniztasuna kontuan hartu.* Ahalik eta hizkuntza jarduera desberdinen lantzeko aukera anitzak ematen zaizkio ikasleari sekuentzietan zehar. Aniztasuna hori ondoko puntuotan gauzatzen da:
 - Hizkuntza erabilera: informatu, kontatu, argudiatu...
 - Solasean: ikaslea informazio hartzailea zein jasotzailea den aldetik.
 - Hizkuntza jarduerak: komunikazio egoera jakin baten arabera testu ezberdinak ulertu, garatu, ideia nagusiak atera, laburtu, norberaren gogoeta eta iritzia azaldu, informazioa inferitu, eskemak egin...
 - Inguruko hizkuntzak, hizkuntza erregistro eta hizkuntza aldakia kontuan hartu.
- d) *Komunikazio beharrizan errealak kontuan hartu.* Hizkuntza jardueraz hitz egiten dugunean ikaslearen komunikazio behar errealak eduki behar ditugu kontuan: ikasleek zertarako eta nola erabiltzen duten hizkuntza. Eta beharrizan hori behin identifikatuta, produkzioa hobetzea izango da, ikasleek dituzten errakuntza eta hutsuneak bereziki landuz.

Hastapen horiek, jakina, marko teoriko bat dute abiaburu, proiektu hau gauzatzeko kontuan hartu duguna. Marko teoriko hori, aipatutako Curriculumean ez ezik, ikasleen garapen kognitiboa azaltzen duten teorietan eta konstruktibismoan ere sustatuta dago. Besteak beste laburki, honako ideiak azpimarratu beharra dago:

- Nerabeek aldaketa garaia da: itxuran harremanetan eta pentsamenduan.
- Oinarritzko gaitasun kognitiboen bilakaera eta jasotako hezkuntza esperientziekin lotura zuzena du.
- Ezagutza eraikitze prozesu baten emaitza da beti: informazio berria jasotzean garrantzi handia daukate ikasleek aurretik dauzkaten ideiek.
- Eskolako ikaskuntzari dagokionez, ezagutza ez da pasiboki hartzen den zerbait. Prozesu aktibo baten barruan kokatzen da.
- Irakaskuntza-ikaskuntzaren prozesuan gertatu ohi diren akatsak beharrezkoak dira ezagutza jasotzeko prozesuan.

- Ikasleak ikaskuntza prozesuan protagonista izan behar du, ikaskuntza hori bere baitan poliki-poliki eraikitzen joan dadin.
- Arauak ikasteari eta kodeari baino hizkuntzaren erabilerari garrantzi handiagoa eman diogu.
- Komunikabideak eta teknologia berriak gaur eguneko komunikazioaren ardatz nagusiak direnez, horien erabilera lehenetsi dugu.
- Hizkuntzak gizartean duen dimentsioaz jabetu daitezten bideak eskaini ditugu.
- Saiatu gara jarduera motibagarriak planteatzen. Horretarako, komunikazioko egoera errealetan oinarritutakoak proposatu ditugu.
- Literaturaren mundura hurbiltzeko aukerak ematea.
- Materialetan eskainiko diren jardueren bidez, komunikazioari dagozkion oinarrizko hizkuntza trebetasunak garatzeko aukera eman.
- Ikasleei, bakarkako jardueraz gain, binaka nahiz taldeka lan egiteko aukerak ere eskaini zaizkie, komunikazio egoerak antolatzeke ezinbestekoak baitira.
- Talde lanei arreta berezia eskaini diegu, besteak beste, jarduera hauek lantzeko aukera ematen dutelako: gainerakoei entzun, txandak errespetatuz hitz egin, ahots goran irakurri, apunteak hartu, entzundakoa labur-labur adierazi...

Nori zuzentzen zaion

Ikasmaterial hau Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. mailako D ereduko ikasleentzako materiala da.

Ez deritzogu egoki DBHko maila hauetan ikasleak gehiago zamatzea, bai pisuz bai diruz. Hori dela eta, ez dugu aurreikusten lanketa koaderno berezirik euskarri moduan, egin beharreko jarduera guztiak koaderno arrunt batean edo orri solteetan edo baliabide informatikoak (TIC) erabiliz egin behar baitituzte.

Arazoi berberagatik ariketak eta jardueran ez dira egingo “ikaslearen liburuan” bertan, behar denetan aparteko orri edo koadernoetan baizik. Modu horretan liburu berberak hurrengo urteetan erabil ditzakete ikastetxe bereko beste ikasle batzuek zein familia bereko neba-arreba gazteek.

Erabilera modua

Ikasleek “Ikaslearen liburuarekin” lan egingo dute, baina era berean, CD-DVDan egiteko ariketak, entzutezkoaren ulermena lantzeko CD-room audioa eta irakaslearentzat lagungarria izango den “irakaslearen gida-liburua”.

Ikaslearen liburuak 9 unitate dauzka, eta unitate bakoitzak 15 bat orrialde. Horrez gainera, liburuan hiruhilabete bakoitzeko irakurketarako proposamenak eta autoebaluazio probak eskaintzen dira. Liburuaren eranskin gisa, berriz, honako hauek ageri dira, besteak beste: aditz taulak, deklinabide taulak eta ortografia arauak.

Ikasmaterial hau erabiltzeko zenbait baldintza aurreikusten dira:

a) Ikasmaterial bere osotasunean ezagutzea: metodoaren atalen osaera ezagutzea:

– Sekuentzia didaktiko bakoitzeko atalak:

- Gaia: Izenburua
- Komunikazio-gaitasunak:
 - Testu mota (eremua)
 - Hizkuntza ekintzak
 - Ulertu
- Hizkuntza ezaugarriak
 - Egitura bereziak
 - Lexikoa
 - Morfosintaxia
 - Ortografia
- Proiektua: Sortu
- Ebaluazioa / Hausnarketa (Zer ikasi dut?)

– 3 sekuentzia didaktikoren bukaeran:

- PROIEKTUA. Helburua: ahozkoatasuna landu
- IRAKURKETA. Helburua: irakurmena landu

b) Irakaslearen gida-liburuan azaltzen diren atal bakoitzaren izaera eta atalak lantzeko zer lortu nahi den ezagutzea.

c) Atalen arteko osagarritasuna ezagutzea, horretarako irakaslearen gida-liburua ezinbesteko tresna da.

d) Ikasleak ezagutzea eta irakaskuntza beren beharretara egokitzea.

Zer euskarritan argitara emango den

Hauek dira DBHko 1. mailarako eskainiko ditugun ikasmaterialak:

- Euskal Hizkuntza eta Literatura DBH 1, Ikaslearen liburua.
- Euskal Hizkuntza eta Literatura DBH 1, Irakaslearen gidaliburua.
- Euskal Hizkuntza eta Literatura DBH 1, Baliabideak, ikasle/irakaslearen CD-DVDa.

DBHko 1. maila: UNITATEEN ESKEMA

| Izenburua | 1. Testu mota | 2. Hizkuntza ekintzak | 3. Ulertu | 4. Hizkuntza ezaugarriak | | | | 5. Sortu | Ebaluatu (Zer ikasi dut?) |
|---------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------|---------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------|----------------------------------------------------|----------|------------------------------|
| | | | | Egitura bereziak | Lexikoa | Morfosintaxia | Ortografia | | |
| 1. Gertaera harrigarriak | Komikia [eskola] (elkarrizketa) | Istorio baten azalpena elkarrizketa bidez | Adituei elkarrizketa | Planoak | <ul style="list-style-type: none"> - Galde-perpauak - Galdetzaileak eta galdetzaileen deklinabideko kasuak: nor, nondik, nongo, zerez - Esaldi simpleak: galdera erantzunak | Gidoiaren erabilera | Egin komiki bat bost urratsetan | Inkesta | |
| 2. Euskaldunen komeriak | Antzezlan | <ul style="list-style-type: none"> - Galdetu - Agindu - Solaskideari ekin | Antzeztan ikusi | Antzekiaren berba-lagunak | <ol style="list-style-type: none"> 1. Orainaldia 2. Zehar estilo eta estilo zuzena | Letra larria (eta xehea) noiz erabili | Bizitza antzeztu bost urratsetan | Inkesta | |
| 3. Euskal Herriko hiri berdeak | Deskribapena | <ul style="list-style-type: none"> - Ezaugarriak eman eta erlazionatu | Irratsio bat entzun | Munduaren berotze globala | Erlatibozko perpauak | Puntuazioa: puntua, koma | Deskribapen bat sortu: Hiri ideala bost urratsetan | Inkesta | |
| PROIEKTUA | <p>Helburua: Ahozkoitasuna landu</p> <p>Zer egin: Irrati nobela bat sortu (aurretik azaldutako testu-moten ezaugarriak izango ditu)</p> | | | | | | | | |
| IRAKURKETA | <p>Antzeztan bat irakurri eta landu.</p> <p>(Materiala gomendatuko zaio irakasleari: pelikula jakin bat...)</p> | | | | | | | | |

| Izenburua | 1. Testu mota | 2. Hizkuntza ekintzak | 3. Ulertu | 4. Hizkuntza ezaugarriak | | | | 5. Sortu | Ebaluatu (Zer ikasi dut?) |
|-----------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------|--------------------------------------------|----------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------|----------------------------------------------------------|---------------------------|
| | | | | Egitura bereziak | Lexikoa | Morfosintaxia | Ortografia | | |
| 4. Bertsoz bertso | Bertsolaritza Ahozko literatura Deskribapena | Bertsoak sortzeko bideak aztertu: bertsolarientlanak | Bertsoak entzun | Bertsoen egitura nagusiak | Sinonimoak eta antonimoak | Izena eta adjektiboa (konparaketak) | Hitz-elkarketa | Bertso-saio bat bost urratsetan sortu | Autoebaluazioa |
| 5. Sorginak, Mikelats, Jentilak eta Iratxoak | Kondaira Literatura tradizionala Narrazioa | Gertaerak alpatu Gertaerak lotu | Kondairak irakurri eta entzun | Ipuinen egitura (hasierako eta bukaerako formulak) | Euskal mitologiako zenbait pertsonaia. Hitz eratorpena (-gari, -kote) | Determinatzaileak | "H" letra | Ipuin bat sortu bost urratsetan | Autoebaluazioa |
| 6. Irakurritz gozatu | Eleberria | Kontalari motak | Euskal eleberrigintza | Eleberrien egitura | Liburuak eta liburutegiak | Denborazko perpausak | Bi puntu (:) | Liburutegi ibiltari bat sortu bost urratsetan | Autoebaluazioa |
| PROIEKTUA | Helburua: Ahozko testuaren landu Zer egin: Ipuin kontaketa (aurreanazladutako testu-moten ezaugarriak izango ditu) | | | | | | | | |
| IRAKURKETA | Eleberri bat irakurriko dute (Materialia gomendatuko zaio irakasleari: pelikula jakin bat...) | | | | | | | | |
| 7. Eskubideak eta betebeharrak | Eskutitzak eta emailak | – Aurkeztu – Argibideak eskatu eman – Agurtu | Eskutitzak eta emailak irakurri eta idatzi | Eskabidea: Goiburua Gorputza Oina | Toki publikoetako hiztegia | Data Erregistroa: egokitasuna | Eratorpena. Hitz-elkarketa | Eskaera bat idatzi bost urratsetan | Autoebaluazioa |
| 8. Perejila eta kamamila | Errezetak (sukaldea, sukaldaritza) | Jarraitbideak eman | Errezetak jarraituz "zerbait egin" | Ekintzen zerrrenda | Sukaldea | – Agintera – Zenbatzaileak (neurrria adierazten duten egiturak) | Kontsonante txistukariak: S, Z, X eta TS, TZ, TX | Euskal sukaldaritza: errezeta bat idatzi bost urratsetan | Autoebaluazioa |
| 9. Etorbizuna jakiteko irrikitan | Horoskopoa (Jarraitbidea) | Iragarri | Orientabideak ulertu eta eman | Ideiak denbora antolatzaileen bidez lotu | Sorginkeria | – Geroaldia – Denborazko adberbio-sintagmak | Puntu eta koma (:) | Horoskopoa bat asmatu bost urratsetan | Autoebaluazioa |
| PROIEKTUA | Helburua: Ahozko testuaren landu eta oharrak idatzi Zer egin: Telebistarako saio laburra grabatu, ikusi ondoren ikaskideek oharrak idatzi eta emailaz bidali. | | | | | | | | |
| IRAKURKETA | Egunero horoskopoa irakurri Errezeta liburu bat topatu eta errezeta bat aukeratu | | | | | | | | |

1. UNITATEA: GERTAERA HARRIGARRIAK. Komikia

(6. - 25. or.)

1. TESTU MOTA

Komikiarekin hasi aurretik, ikasleek aldeztu aurretik dakitena lantzeko, ondoko galderak egin.

- Ba al dakizue nolakoak diren komikiak?
 - Irakurri al duzue komikirik inoiz?
- Ezagutzen al duzue komikietako pertsonaiarik?
- Ekarriko al duzue gustatzen zaizuen komiki bat? Horrela komikia ikaskideei erakutsi eta utziko diezue.

GIZAKIA ETA ILARGIA

1. komikia landu (7. or.)

1. Irakurri arretaz komikia eta erantzun ondorengo galderei:

- Zenbat bineta ditu komiki honek?
- Nor dira komikiko pertsonaiak?
- Zertaz ari dira?
- Zer agertzen da bineta bakoitzeko globoetan?

2. komikia landu (8. or.)

Komiki honek aurrekoarekin dituen berdintasunak eta desberdintasunak nabarmendu. Segi komikiaren teknika ikasten (8. - 9. or.).

2. Eman bukaera istorioari, Kutxagunetik irtetean ikasleek zer egingo duten azalduz. Horretarako, bete azken binetak irudiz eta elkarrizketatxo.

ARIKETA OSAGARRIAK

Ariketa osagarri hauekin hiztegia erabiltzen ikasteko eta hiztegiarekin jolasteko proposamena egiten diogu irakasleari.

3. Irakurri arretaz narrazio hau eta aldatu hitzak, honako sinonimo-zerrenda hau erabiliz: arrasti, bezain laster, heldu, erne, ondoren, ohartu.

HISTORIAKO KLASEA

Bazkaldu ondoren, arratsaldeko azken orduan, atetik sartu bezain pronto, historiako irakaslea sartu eta gizakia Ilargira iritsi zen eguna azaltzen hasi da. Aurreko ikasleek historiako ikasliburua mahai gainean dute eta adi-adi begira daude.

Irakasleak azaltzen du II. Mundu Gerraren ostean ipar amerikarrek eta errusiarrek espazioa esploratzeko lehia hasi zutela. Gelaren atzealdean bi ikasle hizketan ari direla konturatu da irakaslea, eta haiengana joan da.

4. Sakondu eta sortu.

Orain ikasitakoa praktikan jar dezakezu. Horretarako, honako hau egin dezakezu:

- Hartu gehien gustatzen zaizkizun komikiak eta azaldu zure lagunei aukeratu dituzun komikietan zein teknika erabili den, nolakoak diren binetak, globoak, testua eta onomatopeiak.
- Komikietako marrazkiak sortu, eskuz kopia edota kartoi mehe batean kolorezko kopia itsatsi eta azalpenak eskuz idatzi.
- Komikiak sarean bilatu eta aurkezpenak ordenagailuz egin.

2. HIZKUNTZA-EKINTZAK

Entzun

(CDa erabili: 05 Gaston.mp3)

KOMIKIGILE BATI ELKARRIZKETA

Orain José Gastón Majarenasi entzungo diogu zer dela-eta sortzen dituen komikiak eta zer besterik kontatzen duen.

Iturria: euskaraz.net (moldatua)

Hilabetero IPURBELTZ komiki aldizkaria jasotzen dugu, eta, “Naiara” komikia askotan irakurri eta gustukoa genuenez, “Naiara”-ren marrazkilariari elkarrizketa egitea bururatu zitzaigun. José Gastón Majarenas du izena. Ipurbeltz komiki aldizkariatz gain, helduentzako Habekomik-en ere argitaratu izan ditu komikiak.

KATALINA: Noiz eta non jaio zinen?

JOSÉ: Donostian (Amara Zaharrea), 1941ko Azaroaren 12an.

KATALINA: Non bizi zara orain?

JOSÉ: Intxaurren.

KATALINA: Betidanik komikigile lanetan aritu zara?

JOSÉ: Hasieran, publizitateko marrazkilari lana egin nuen, baina, duela 30 urtetik hona, komikiak eta ilustrazioak egiten aritu naiz liburu eta aldizkarietan.

KATALINA: Eskolan, marraztea gogokoa zenuen?

JOSÉ: Bai, asko! Eskolan nengoenean, marrazteko erraztasuna nuen, eta oso gustukoa nuen marraztea.

KATALINA: Nola ikasi zenuen marrazten?

JOSÉ: Asko marraztuta. Geroago, Arte Eskola batean.

KATALINA: Komiki marrazkilariak eta margolari batek zerikusirik al dute?

JOSÉ: Bai, margolariak ere marrazten jakin behar dute.

KATALINA: Komikiak marrazteaz gain, bestelako lanik egin duzu?

JOSÉ: Bai, publizitatean lan egin dut eta ilustraziogile ere aritu naiz zenbait aldizkari eta eskola liburutan.

KATALINA: Ipurbeltzeko “Naiara” komiki ezagunaz gain, beste pertsonaiarik izan al duzu?

JOSÉ: Bai, “Jone eta Jon” , “Ipurbeltz” eta “Aitor”.

KATALINA: Komikiak sortzen gozaten duzu?

JOSÉ: Bai, sortzean, zure pertsonaiekin edozein gauza imajinatzeko edo egiteko askatasun osoa duzulako!

KATALINA: Nola bururatu zitzaizkizun “Flasko” eta “Naiara” pertsonaiak?

JOSÉ: Hasieran, neskabila baten pertsonaia egin nahi nuen, eta “Naiara” sortu zen! Baina, denborarekin, “Flasko”, bigarren mailako pertsonaia zena, protagonismo gehiago hartzen joan da, irudimenezko egoerak sortzeko aukera gehiago ematen didalako.

KATALINA: Zertan inspiratzen zara komiki bat egiteko?

JOSÉ: Errealitatean edo irudimenezko egoeretan inspiratzen naiz, eta, bakarrik bi orrialdeko komikia denez, istoriotxo labur bat imajinatzen dut bukaera txispagarri edo harrigarri batekin. Behintzat, hori da nire asmoa...!

KATALINA: Komiki bat egiteko, zein prozesu jarraitzen duzu?

JOSÉ: Arkatzez biñeta bakoitza marrazten dut, eta egiten noan heinean istoriotxoa sortzen dut; ondoren, zenbait bukaeraren artean hoberena iruditzen zaidana aukeratzen dut. Komikia arkatzez bukatzen dudanean, tinta eran margotzen dut errotulagailuz, eta koloreztatu egiten dut amaieran, anilinekin (kontzentrazio handiko akuarela mota bat da).

KATALINA: Zenbat denbora behar izaten duzu “Naiara”-ren komikia egiteko?

JOSÉ: Hiru egun inguru. Hala ere, dokumentazioa bilatu behar badut, denbora gehiago behar izaten dut.

KATALINA: Non egiten dituzu komikiak, etxean ala estudio batean?

JOSÉ: Etxean.

KATALINA: Bizi al daiteke komiki marrazkilari lanaz?

JOSÉ: Bai, asko argitaratzen dutenak eta mundu osoan ezagun direnak horretatik bizi dira.

KATALINA: Txikitan zein komiki gustatzen zitzaizkizun?

JOSÉ: Txikitan, Caracasen (Venezuela) bizi izan nintzen, eta han “Dick Tracy”, “La Pequeña Lulú”, “El Hombre Enmascarado”... asko gustatzen zitzaizkidan.

KATALINA: Eta orain?

JOSÉ: “Moebius” komikilariaren komikiak eta zientzia-fikziozko beste batzuk.

KATALINA: Ibañezek ondo marrazten duela iruditzen zaizu?

JOSÉ: Bai, umorezko komiki estiloan ona da.

KATALINA: Zein zaletasun dituzu?

JOSÉ: Irakurtzea, musika entzutea, bideo-jokoak eta zinema.

Iturria: <http://www.euskaraz.net/Hezkuntza/Auzoka/Auzoka80/07> (moldatua)

5. Adierazi egia (E) ala gezurra (G) den.

- Donostian, 1941eko azaroaren 12an jaio zen. EGIA
- Orain Amara Zaharrean bizi da. *GEZURRA*
- Eskolan zegoenean, marrazteko erraztasuna zuen, eta oso gustukoa zuen marraztea. *EGIA*
- Komiki bat egiteko errealitatean edo irudimenezko egoeretan inspiratzen da. *EGIA*
- Komikiak estudioan bakarrik egiten ditu. *GEZURRA*
- Ez zaio irakurtzea gustatzen; bai ordea, musika entzutea, bideo-jokoak eta zinemara joatea. *GEZURRA*

6. Erantzun testuari buruzko galdera hauei. Ulermena eta sinonimoak lantzeko galderak:

Ariketa honetan irakurritakoaren ulermena lantzen da, testuko oinarritzko gertakariak ulertzen eta galderen bidez sinonimoak lantzen dira.

- Nor da elkarrizketatutako pertsonaia?

ERANTZUNA: Komikigile bat da, José Gastón Majarenas izena du. Ipurbeltz komiki-al-dizkariatz gain, helduentzako Habekomik ere egiten du.

- Bera nongoa da izatez?

ERANTZUNA: Donostiarra da.

- Zer ikasketa egin du?

ERANTZUNA: Arte Eskolan ikasi zuen.

- Gustuko du komikiak sortzea? Zergatik?

ERANTZUNA: Bai. Errealitatean edo irudimenezko egoeretan inspiratzen delako gustuko du komikiak sortzea.

- Komikia marrazteko eta idazteko orduan, neur daiteke komikia sortzeko denbora?

ERANTZUNA: Ez beti, dokumentazioa bilatzeko denbora asko behar izaten du eta.

- Badago inor komikitik aberastu denik?

ERANTZUNA: Bai, jende mordoa.

7. Zure iritzia eman ez erantzun:

Ariketa honetan ikasleek beren iritzia eman behar dute. Iritziak edota deskribapenak azaltzerakoan, hiztegi aberatsa eta gramatika zuzentasunez erabili behar dute. Irakasleari ondoren landuko diren galde-perpauak lantzea eta komikien lexikoa jorratzen ahalegintzea proposatzen diogu.

- Ezagutzen dituzu Joseren elkarrizketan agertu diren komikiak? Eta pertsonaiak? Nolakoak dira?

Erantzun honetan interesgarria da jakitea, batetik, ezagutzen dituzten ikasleek komiki hauek; eta bestetik, nola antolatu behar duten deskripzio bat.

- Gustatzen zaizkizu komikiak?

- Zer komiki mota dituzu gustuko?

Bi erantzun hauei dagokienez, ikasleei gustatzen zaizkienak lan ditzakegu, baina erreferentea komikiak direla beti.

– Non irakurtzen dituzu komikiak? Etxean edota liburutegian?

Erantzun honen xedea da zein lekutan irakurtzen duten jakitea; eta euren erantzunek irakurketa beste testuinguru batzuetan lantzeko bidea ematen digute, liburutegian esate baterako.

3. ULERTU

Erantzun irakurri aurretik:

- Ba dakizu Zientziaren Kutxagunea zer den? Eta bertan zer egiten den?
- Gizakia Martera iristeko gai izango dela pentsatzen duzu? Zertarako joan hain urruti?
- Lurretik kanpo bizitzarik badela uste duzu?

KUTXAGUNETIK ILARGIRAINO

Miren Millet Fisikan Lizentziatua eta Hezkuntza Teknikaria da. Zientziaren Kutxaguneko Edukien Saileko arduraduna da. Bera ez da Ilargian egon, baina asko daki Ilargiari eta bizitzari buruz. Horregatik, berarekin harremanetan jarri eta elkarrizketa hau egin diogu.

8. Bilatu termino hauen irudiak eta esanahia sarean

Bilatu termino hauek hiztegian edota sarean eta azaldu testuan zer esanahi duten. Informazioa osatzeko, besteak beste, HARLUXET HIZTEGI ENTZIKLOPEDIKOA ikus daiteke.

- Planeta
- Ilargia
- Satelitea
- Izarra
- Espazioa

4. HIZKUNTZA-EZAUGARRIAK

EGITURA BEREZIAK

Elkarrizketaren hasierako eta amaierako agurrak

Elkarrizketaren ezaugarriak

Antzeztu

9. Elkarrizketa ileapaindegian (Hiru ikasleren artean antzez dezatela elkarrizketa).

Ander: Egun on!

Beni: Baita zeuri ere! Eseri hemen, oraintxe hasiko gara eta. Nola nahi duzu ilea moztea?

Ander: Ba... Motza eta...

Beni: A! Motza! Oso ondo mutil! Bai horixe! Oraingo gazteen azken moda da, bai, motza! Horixe bera izan zen nire garaiko moda; baina gero etorri ziren txima luze horiek... Eta hara

non, berriro ile laburra. Hobeto horrela.... Udan freskoago eta, gainera, garbiago... Arazo gutxiago izaten da horrela.... Beno, amaitu dut. Zer? Gustuko duzu horrela?

Ander: Beno, egia esan...

Beni: Eskerrik asko. Agur eta ikusi arte. Hurrengo!!!

Eneko: Egun on!

Beni: Berdin. Nola moztuko dizut?

Eneko: Ahoa zabaldu gabe eta isilik.

Beni: !!!!

10. Eman zure iritzia hiru pertsonaia horiei buruz, galdera hauei erantzunez:

Irakasleak, talde handian, elkarrizketa bideratuko du. Horretarako, elkarrizketa entzun ondoren, minutu gutxi batzuk emango dizkie ikasleei erantzunak presta ditzaten.

– Non gertatu da elkarrizketa?

Gizonezkoen ile-apaindegi batean.

– Nor dira Ander, Beni eta Eneko?

Ander eta Eneko, bezeroak; eta Beni, ile-apaintzailea.

– Nolakoak dira?

Ander, gaztea, lotsati edo herabe samarra; Beni, gizon heldua eta hitzontzia, isiltzen ez dena; eta Eneko, lotsagabea, eta ez dakigu gaztea edo heldua den.

– Nolako harremanak dituzte?

Formalak.

– Zure ustez, Enekok ondo jokatu du?

(Erantzun librea; arrazoiak eman).

IDAZMENA

11. Osatu elkarrizketa:

Ondoko egoeretako bat oinarri harturik, idatz ezazu irakurri berri duzuna bezalako elkarrizketa bat.

– Lagun bi sukaldean daude eta bata afaria prestatzen ari den bitartean, besteak iritziak eta aholkuak ematen dizkio afaria nola prestatu azaldu nahian. Jakina, haserre bizian amaitzen dute elkarrizketa.

– Zinemako atarian zaude sarrerak erosteko zain ilara luzean eta berandu datorren lagun batek berari ere sarrera erosteko eskatu dizu. Inguruko guztiek begiratu gaiztoak egin dizkizute.

12. Lot itzazu esaldiak eta egoerak:

1c, 2g, 3k, 4a, 5e, 6b, 7i, 8l, 9d, 10f, 11j, 12h.

LEXIKOA

Irakurri eta begiratu irudiari:

Komikiak istorioak kontatzeko balio du, filmak bezala. Irudi edo plano desberdinez osatzen dira gertaerak.

Planoak

1. Plano hurbila
2. Plano ertain laburra
3. Plano ertaina
4. Plano amerikarra
5. Plano orokorra

Hurrengo ariketa egingo dute:

13. Pertsonaia bat aukeratu eta bost planoetan irudikatu.

14. Irakurri eta egin jarduera.

Eponimoak Testuaren ondoren hurrengo jarduera:

Ezagutzen al duzu beste eponimorik? Informazioa bilatu eta idatzi.

- Abuztua: Zesar Oktavio Augusto, Erromako enperadorea.
- Pamplona: Ponpeio politikari eta militar erromatarra izan zen. Enperadore horrek birsortu zuen Iruñea, eta bere omenez Pompaelo izen berria jarri zion.
- Diesel motorra: Rudolf Diesel Alemaniako ingeniaria.
- Braille alfabetoa: Louis Braillek asmatutako alfabeto mota, itsuek irakurtzeko balio duena.

MORFOSINTAXIA

Irakurri arretaz

Galde-perpausak

Abestu

15. Maritxu nora zoaz?

(CDa erabili)

- Maritxu, nora z oaz, eder galant hori?
- Iturrira, Bartolo, nahi baduzu etorri.
- Iturrian zer dago?
- Ardotxo txuria.
- Biok edango dugu nahi dugun guztia.

a) Zer motatako galderak egin dizkio Maritxuri? Zati-galderak

b) Baina Bartolo herabe samarra denez, ez da ausartzen besterik galdetzera. Zuk lagunduko diozu? Besterik galdetuko al dio? Jarri galderak ondoko taulan eta asmatu Maritxuren erantzunak:

| Zati-galderak | Bai-ez erako galderak | Aukera-galderak |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Zer galdu duzu iturrian, bada? – Ezer ere ez. Zeren bila zoaz iturrira? – Ur bila, jakina. Zertara, bestela? ... | Zurekin joan naiteke? – Nahi baduzu, bai; ez dago arazorik, baina ez egin galdera gehiegi, mesedez. – Nire galderak ez dituzu gogoko? – Ez. ... | Non dago iturri hori: urrun ala hurbil? – Ez dago oso urrun. – Norekin zoaz iturrira: bakarrik ala lagunekin? – Bakarrik noa ... |

KONTUAN IZAN

Zenbat itaun, hainbat erantzun daude. Irakurri arretaz:

Adibidea: *Aitak sukaldeko ontziak garbituko ditu afaldu ondoren.*

Azpmarratu nahi dugun informazioaren arabera, zenbait galdera egin ditzakegu:

- **Nork** garbituko ditu sukaldeko ontziak? – **Aitak** garbituko ditu sukaldeko ontziak.
- **Nongo ontziak** garbituko ditu? – **Sukaldeko ontziak** garbituko ditu.
- **Zer** garbituko du aitak? – (**Sukaldeko**) **ontziak** garbituko ditu aitak.
- Aitak **zer** egingo du? – Aitak **garbitu** egingo du.
- **Noiz** garbituko ditu sukaldeko ontziak? – **Afaldu ondoren** garbituko ditu sukaldeko ontziak.

16. Egin gauza bera ondoko esaldietan:

1. *Gazte jendea batetik bestera dabil asteburuetan.*

Nor dabil batetik bestera? Gazte jendea dabil.

Nondik nora dabil gazte jendea? Batetik bestera dabil.

Noiz dabil gazte jendea batetik bestera? Asteburuetan dabil.

Zer egiten du gazte jendeak? Ibili dabil gazte jendea.

2. *Zuk berehala asmatu duzu erantzun zuzena.*

Nork asmatu du erantzun zuzena? Nik asmatu dut.

Noiz asmatu duzu? Berehala asmatu dut.

Zer egin duzu? Asmatu egin dut.

Zer asmatu duzu? Erantzun zuzena asmatu dut.

Nolako erantzuna asmatu duzu? Erantzun zuzena asmatu dut.

5W eta H1

17. Zeregina: sei galdera horiek kontuan harturik asmatu istoriotxo bat. Dibertigarriagoa izango da lana beste ikaskide batekin egiten baduzu.

18. Ezetz jakin

Erantzun galdera hauei. Erantzuna Sarean konprobatu (irakasleak lehiaketa bat antola dezake galdera hauekin edo ikasleek elkarri egiten dizkioten galderekin):

- Zenbat minutu ditu erlojuak? (hirurogei minutu ditu).
- Noiz hartzen dira oporrak eskoletan? (ekainean, abenduan, Aste Santuan / udaberrian).
- Nongoa da Osasuna futbol-taldea? (Nafarroakoa da).
- Zein dira euskal herri-musikako tresnak? (txalaparta, danbolina, txistua, panderoa, dulzaina, trikitia, alboka).
- Nork asmatu zuen Gargantua erraldoia? (XVI. mendeko Frantziako Rabelais idazleak).
- Zerez egina dago Eiffel dorrea? (burdinez).
- Nondik nora doaz Zubietako joaldunak inauterietan? (Zubietatik Iturenera).
- Nori bururatu zitzaion grabitatearen legea sagar bat buru gainera jausi zitzaionean? (Isaac Newton fisikariari).
- Nork eman zion munduari lehenbizikoz bira osoa ? (Juan Sebastian Elkano getariarrak (1486/1487-1526). 1519tik 1522ra bitartean egin zuen mundu-bira).

19. Egin galderak

Xabier Letek asmatu eta kantatu zituen aurrenekoz bertso hauek. Geroago Mikel Laboak eta Ken7-k beretu zituzten. Guk bertso horietatik esaldi batzuk atera ditugu. Zein galdera dagokio esaldi bakoitzari?

- Izarren hautsa egun batean bilakatu zen bizigai. – Noiz bilakatu zen bizigai izarren hautsa?
- Eta horrela bizitzen gara. – Nola bizitzen gara?
- Lana eginez goaz aurrera. – Nola goaz aurrera?
- Saiatze horretan ezin gelditu. – Zertan ezin gelditu?
- Gu sortu ginen enbor beretik sortuko dira besteak. – Nondik sortuko dira besteak?
- Ez, diru zakarrak ez du bihotzik. – Diru zakarrak badu bihotzik?
- Bai, bere premiak bete nahian beti bizi da gizona. – Bere premiak bete nahian beti bizi da gizona?
- Badakizu zein kanta den? (Izarren hautsa. Irakasleak Ken7-ko bertsioa erabil dezake)

Izarren hautsa

(Xabier Lete / Mikel Laboa / Ken7)

(CDa erabili: Izarren hautsa)

Izarren hautsa egun batean bilakatu zen bizigai,
hauts hartatikan uste gabean noizbait ginaden gu ernai.
Eta horrela bizitzen gara sortuz eta sortuz gure aukera
atsedenik hartu gabe: lana eginaz goaz aurrera
kate horretan denok batera gogorki loturik gaude.

Gizonak badu inguru latz bat menperatzeko premia,
borroka horretan bizi da eta hori du bere egia.
Ekin eta ekin bilatzen ditu, saiatze horretan ezin gelditu,
jakintza eta argia; bide ilunak nekez aurkitu
lege berriak noizbait erditu, horretan jokatuz bizia.

Gizonen lana jakintza dugu: ezagutuz aldatzea,
naturarekin bat izan eta harremanetan sartzea.
Eta indarrak ongi errotuz, gure sustraiak lurrari lotuz,
bertatikan irautea: ezaren gudaz baietza sortuz,
ukazioa legetzat hartuz beti aurrera joatea.

Ez daukanak ongi ohi daki edukitzea zein den ona,
bere premiak bete nahian beti bizi da gizona.
Gu ere zerbait bagara eta gauden tokitik hemendik bertan
saia gaitezen ikusten: amets eroak baztertuz bertan,
sasi zikinak behingoz erreta bide on bat aukeratzen.

Gu sortu ginen enbor beretik sortuko dira besteak,
borroka horretan irauango duten zuhaitz-ardazka gazteak.
Beren aukeren jabe eraikiz eta erortzean berriro jaikiz
ibiltzen joanen direnak: gertakizunen indar eta argiz
gure ametsa arrazoi garbiz egiztatuko dutenak.

Eta ametsa bilakaturik egiaren antz-iduri
herri zahar batek bide berritik ekingo dio urduri;
guztien lana guztien esku jasoko dute sendo eta prestu,
beren bizitzen edergai; diru zakarrak bihotzik ez du,
lotuko dute gogor eta estu haz ez dadin gizonen gain.

ORTOGRAFIA

Irakurri arretaz

Gidoiaren erabilera: marratxoarekin eta bereiz

Marratxoarekin idaztekoak

- Hitz bera errepikatzen denean: *alfer-alferrik, gaur-gaurkoz, poliki-poliki, zuzen-zuzen(ean), ikusi-makusi, zehatz-mehatz, apurka-apurka, astero-astero.*
- Bikote osagarriak biltzen dituztenean: *seme-alabak, senar-emazteak, joan-etorri, zeru-lurrak, ikus-entzunezko.*

Bereiz idaztekoak (marratxorik gabe)

- Aditz hauetan: *lo egin, su eman, negar egin, min hartu, ihes egin, hitz egin.*
- Bigarren osagaia *bila, eske* edo *falta* denean: *ur bila, diru eske, lo falta.*

Ikus Euskaltzaindiaren 25. araua: Hitz elkartuen osaera eta idazkera

20. Zuzendu esaldi okerrak (okerrak)

- Seme alaba guztiak elkartu ziren bazkarian.
- Alfer-alferrik etorri naiz hain goiz.
- Tximeleta baten antzera lore-bila dabil.
- Diru-eske ari da kalean.
- Euria barra-barra ari zuen.

Zuzendu esaldi okerrak (zuzenketa)

- Seme-alaba guztiak elkartu ziren bazkarian.
- Alfer-alferrik etorri naiz hain goiz.
- Tximeleta baten antzera lore bila dabil.
- Diru eske ari da kalean.
- Euria barra-barra ari zuen.

21. Aukeratu ondo dagoena

1c, 2b, 3a, 4b, 5c

22. Ondoko pasarteetan idazleari marratxoak jartzea ahaztu zaio. Lagunduko diozu marratxoak jartzen?

Xabinaitor euskal super-heroia da eta astero astero salbatzen du neskato bat, Patxi Gallegoren liburu polit polita da. Komiki-liburua da, euskaraz egina dago.

23. Hemen, berriz, marratxo gehiegi jarri ditu. Mesedez, lagundu idazleari marratxoak ezabatzen.

Angulemako Komiki Azoka oso garrantzitsua da, Frantzia eta Europa osoan. 1974an sortu zuten Angulema hiri frantziarrean. Jendea komiki bila joaten da bertara, eta komikigileekin hitz egiten du.

5. SORTU

EGIN KOMIKI BAT BOST URRATSETAN

SORTU proiektua egiteko informazio eta urrats guztiak ikaslearen liburuan daude, honako ohar hauek izan ezik:

Irakaslearentzako oharrak

- Jarduera hau egin baino lehen ikasleekin negoziatu behar da gaia: zeri buruz izango den komikia.
- Era berean ikasleei adierazi behar zaie zein izango den komikiaren azken helmuga: ikastetxeko hormetan eskegi, aldizkari bat egin...
- Komikiak lan handia eskatzen duenez, komeni da talde txikietan egitea.

1. URRATSA: gidoia
2. URRATSA: irudien antolamendua
3. URRATSA: zirriborroa
4. URRATSA: zirriborroa zehaztu
5. URRATSA: koloreztatu

EBALUAZIOA

ZER IKASI DUT?

1. Erantzun honako galderei:

- a) Zertarako erabiltzen dira komikietan globoak?
- b) Zein da komiki bat egiteko prozesua?
- c) Zer da eponimoa?

2. Zerrenda itzazu ikasi dituzun plano motak.

3. Idatzi goraintziak emateko hiru formula.

4. Idatzi hiru hitz elkartu marratxoa dutenak.

5. Zer ikasi duzu?

6. Zer zenekien lehendik?

7. Zer iruditu zaizu errazena?

8. Zerbait errepasatu behar duzula uste duzu?

Irakaslearentzako zenbait laguntza

GLOBOA: forma geometriko bat izaten du eta pertsonaien elkarrizketez betea egoten da.

“Arkatzez marratzen dut bineta bakoitza, eta egiten noan heinean istoriotxo bat sortzen dut; ondoren, zenbait bukaeraren artean hoberena iruditzen zaidana aukeratzen dut. Komikia arkatzez bukatzen dudanean, tinta eran margotzen dut errotulagailuz, eta amaieran koloreztatu egiten dut, anilinekin (anilina kontzentrazio handiko akuarela mota bat da)”.

Plano hurbila

Plano ertain laburra

Plano ertaina

Plano amerikarra

Plano orokorra

Goraintziak!

Eman goraintziak nire aldetik

Eskumuinak eman

Eponimo hitzak izengoitia esan nahi du, eta pertsona-izen bati erreferentzia eginez, toki, gauza edo kontzeptu bat izendatzeko erabiltzen da.